



Euskararen estatus juridikoa

AURKIBIDEA

Ohar orokorra	1
Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE).....	1
Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu euskalduna	4
Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu mistoa	7
Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu ez euskalduna.....	8
Iparraldea.....	9

Ohar orokorra

Euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoko eremu euskaldunean, baina ez du ofizialtasunik Nafarroako eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean. Ipar Euskal Herrian ere euskara ez da ofiziala.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE)

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

- 1.- Gaztelania da Estatuko hizkuntza ofizial espainiarra. Espainiarrek oro gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.
- 2.- Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, haien estatutuen arabera.
- 3.- Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskara hizkuntza ofiziala da

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua:

“Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren izaera izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.”

1. Ondorioa:

Hiztunak eskubidea du euskara balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izateko, eta inork ezingo dio eskatu berak hautatutako hizkuntza ofiziala ez besteren batean mintza dadin, eta eskubidea du, orobat, mintzakidea erakunde publikoa bada, berak hautatutako hizkuntza horretan erantzun diezaion.

2. Ondorioa:

Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko **Herri-aginte guztiak** daude euskararen ofizialtasun-araubidearen pean (Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia, 2. oinarri juridikoa):

- Eusko Jaurlaritzaren menpeko administrazio-erakundeak (Lehendakariak eta sailburuek osatutakoa, eta baita ere Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion erakundeak).
- Udalak eta toki-administrazio gainerako erakundeak.
- Lurralde historikoetako administrazioak.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoan den Estatuaren administrazioa.
- Europar Batasunak lurralde horietan ezar ditzakeen administrazio-erakunde edo ordezkariak.
- Erakunde autonomoaren izaera duten administrazio-erakundeak: Instituto Nacional de Estadística (INE), Instituto Nacional de Empleo (INEM) , Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS), Agencia Estatal Tributaria, Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE), Correos y Telégrafos, eta abar.
- Orobat, Euskadiko Autonomia Erkidegoan diren bertako zein nazioarteko beste herri-aginteak.

3. Ondorioa:

Harreman publiko nahiz pribatuetarako euskara askatasunez hautatu ahal izango dute herritarrek.

4. Ondorioa:

Berdintasunerako eskubidea eta hitz egiteko euskara hautatzeagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea dute herritarrek.

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 14. artikulua: “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

5. Ondorioa:

Herritarrak eta herri-aginteak konstituzioaren eta ordenamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 9. artikulua: “1. Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude. 2. Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen

badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere. (...)"

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 103. artikulua: "1. Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez. (...)"

6. Ondorioa:

Herritar guztiek dute eskubide berbera euskara ofiziala den lurraldeko edozein lekutan erabiltzeko.

(Konstituzio-auzitegiaren 82/1986 epaiaren 2. oinarri juridikoa, eta 337/1994 epaiaren 5. oinarri juridikoa).

7. Ondorioa:

Herri-agintek aukera dute herritarrekiko harremanetan hizkuntza ofizialkideetako bat edo bestea -bat bakarra- erabiltzeko.

Konstituzio-auzitegiak adierazi duenez "herri-agintek hizkuntza ofizialkideetako edozein erabil dezakete, nahieran, berek hala erabakita edo interesatuek aukeratu dutelako, baldin eta horrela araututa badago; beti ere interesatuetako inori kalterik eragiten ez bazaio erabiltzen ari den hizkuntza ez dakiela-eta; interesatu horrek, ordea, baliozko eran alegatu beharko du hizkuntza ofizial hori –gaztelaniaz besteko bat izan behar du, nahitaez– ez dakiela." Prozedura osoa euskaraz egin ahal izatea hizkuntza horrek Euskal Autonomia Erkidegoan duen izaera ofizialaren ondorio berezkoa da; izaera horrek berarekin dakar autonomia-erkidego horren eremuan euskaraz egiten den jarduketa oro eraginkor izatea." (STC 82/1986, 9. oinarri juridikoa)

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1996ko martxoaren 26ko R.2593 epaiak eta 1997ko apirilaren 15eko R.3956 epaiak argi erakusten dute ofizialkidetasunak ez duela nahitaez esan nahi "...herri-aginteak, edo Korporazioak, bi hizkuntza ofizialetara itzuli behar dituela argitaratzen dituen edo sinatzen dituen agiri guztiak ..."

Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu euskalduna

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

- 1.- Gaztelania da Estatuko hizkuntza ofizial espainiarra. Espainiarrek oro gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.
- 2.- Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, haien estatutuen arabera.
- 3.- Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

NAFARROAKO EREMU EUSKALDUNA

Euskarak hizkuntza ofizial maila du

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua:

“2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du, eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik.

Euskararen Foru Legearen 2. artikulua:

“1. Gaztelania eta euskara Nafarroaren berezko hizkuntzak dira eta, ondorioz, herritar guztiek dute eskubidea biak ezagutu eta erabiltzeko. 2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.. Euskara ere bada, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren (lehen aipatutako berorren) 9. artikuluan eta Foru Lege honetako artikuluetan ezarritako baldintzetan.”

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen aldaketa:

2017ko ekainaren 22an Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 5.1.b) artikulua onetsi zuen. Aldaketa horren bidez, eremu mistoa beste 44 udalerritara hedatu zen, guztira 98 herri biltzeraino, eta Atetz eremu euskaldunera igaro zen. Horrezaz gain, Noain-Elortzibarko udalerria ere eremu mistoan “automatikoki” sartzea aurreikusten zen, “baldin eta toki korporazio horretako udalbatzak gehiengo osoz hartzen badu erabakia”.

Eremu euskalduneko udalerriak:

Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arruazu, Atetz, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana,

Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lekunberri, Lesaka, Luzaide, Oiz, Olazti, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte Arakil, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urroz, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi.

1. Ondorioa:

Hiztunak eskubidea du euskara balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izateko, eta inork ezingo dio eskatu berak hautatutako hizkuntza ofiziala ez besteren batean mintza dadin, eta eskubidea du, orobat, mintzakidea erakunde publikoa bada, berak hautatutako hizkuntza horretan erantzun diezaion.

2. Ondorioa:

Nafarroan kokaturiko **Herri-aginte guztiak** daude euskararen ofizialtasun-araubidearen pean. (Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia, 2. oinarri juridikoa):

- Eremu euskaldunean diren Nafarroako Gobernuaren administrazio-erakundeak (Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioa)
- Udalak eta toki-administrazio gainerako erakundeak.
- Europar Batasunak lurralde horietan ezar ditzakeen administrazio-erakunde edo ordezkariak.
- Erakunde autonomoaren izaera duten administrazio-erakundeak: Instituto Nacional de Estadística (INE), Instituto Nacional de Empleo (INEM), Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS), Agencia Estatal Tributaria, Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE), Correos y Telégrafos, eta abar.,
- Nafarroan diren bertako zein nazioarteko beste herri-aginteak

3. Ondorioa:

Harreman publiko nahiz pribatuetarako euskara askatasunez hautatu ahal izango dute herritarrek.

4. Ondorioa:

Berdintasunerako eskubidea eta hitz egiteko euskara hautatzeagatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea dute herritarrek.

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 14. artikulua: “Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.”

5. Ondorioa:

Herritarrak eta herri-aginteak konstituzioaren eta ordenamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 9. artikulua: "Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude. 2. Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere. (...)"

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 103. artikulua: "1. Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, decentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez. (...)"

6. Ondorioa:

Herritar guztiek dute eskubide berbera euskara ofiziala den lurraldeko edozein lekutan erabiltzeko. (Konstituzio-azitegiaren 82/1986 epaiaren 2. oinarri juridikoa, eta 337/1994 epaiaren 5. oinarri juridikoa).

7. Ondorioa:

Herri-aginteek aukera dute herritarrekiko harremanetan hizkuntza ofizialkideetako bat edo bestea -bat bakarra- erabiltzeko.

8. Ondorioa:

Nafarroako herritarrei euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea onartzen zaie, eta hezkuntza euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, Legeak ezarritako baldintzetan, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera, eta printzipio hauekin bat etorritz: borondatezkoa izatea, mailakakoa izatea eta begirunea.

Euskararen Legearen 1. artikulua: "2. Lege honen funtsezko helburuak dira: (...) c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera, eta beti ere, printzipio hauekin bat etorritz: borondatezkoa izatea, mailakakoa izatea eta begirunea."

Euskararen Legearen 19. artikulua: "Herritar guztiek dute eskubidea hezkuntzako era bateko eta besteko mailetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko, ondoren datozen kapituluetan ezarritako baldintzetan".

9. Ondorioa:

Administrazio-jakinazpen eta -komunikazioak euskara hutsez jasotzeko eskubidea, euskara hutsez jasotzeko aukera berariaz egin dutenean, eta hizkuntzetako bat berariaz aukeratu ez dutenean, bi hizkuntza ofizialez idatzita jasotzekoa.

Fede-emaile publikoei euskarazko kopiak eta lekukotzak eskatu eta horiek euskaraz eskuratzeko eskubidea, eta fede-emaile horien erantzukizunekoak diren matrize eta agiriak itzultzeko ardura fede-emaileena eurena izatekoa. Hala eta ere, gune euskaldunetik kanpoko ondorioak izango dituzten kopiak gaztelaniaz eman beharko dira.

Erregistro publikoetan, agiria idatzita dagoen hizkuntza ofizial bera erabiliz egingo dira idazpenak, eta edozein kasutan, baita gaztelaniaz ere. Kopia eta ziurtagiriak euskaraz eskatu eta jasotzeko eskubidea.

Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu mistoa

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

- 1.- Gaztelania da Estatuko hizkuntza ofizial espainiarra. Espainiarrek oro gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.
- 2.- Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, haien estatutuen arabera.
- 3.- Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

NAFARROAKO EREMU EUSKALDUNA

Euskara ez da ofiziala

Eremu mistoko udalerriak:

Abaigar, Abartzuza, Adios, Agoitz, Allin, Amekoabarrena, Antsoain, Antzin, Añorbe, Aranaratxe, Aranguren, Arellano, Artazu, Artzibar, Atarrabia, Barañain, Bargota, Beraskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Biurrun-Olkotz, Burgi, Burlata, Cabredo, Deierri, Deikaztelu, Eguesibar, Eneritz, Erriberri, Erronkari, Espartza Zaraitzu, Etxarri, Etxauri, Eulate, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar Zendea, Galoze, Garde, Gares, Garinoain, Gesalatz, Goñerri, Gorza, Iruña, Itza Zendea, Itzagaondoa, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Larragoa, Leotz, Lerga, Lezaun, Lizarra, Lizoain-Arriasgoiti, Longida, Mendigorria, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Obanos, Odieta, Oibar, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoiain, Orontze, Orotz Betelu, Oteitza, Otsagabia, Puiu, Sartze, Tafalla, Tebas-Muru Artederreta, Tirapu, Txulapain, Uharte, Untzue, Urraulbeiti, Urrotz-Hiria, Urzainki, Uxue, Uztarroze, Villatuerta, Zabaltza, Zangoza, Zirauki, Ziritza, Zizur Zendea, Zizur Nagusia eta Zuñiga.

Ondorioa:

Euskararen Legeak eremu mistoko herritar guztiei ezagutzen die Nafarroako herri-administrazioarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta lege horretan aurreikusten denez, herri-administrazio horiek zehaztu egin behar dute zein lanpostu publikotarako izango den beharrezkoa euskara jakitea

Nafarroako Foru Erkidegoa: eremu ez euskalduna

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

- 1.- Gaztelania da Estatuko hizkuntza ofizial espainiarra. Espainiarrek oro gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.
- 2.- Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, haien estatutuen arabera.
- 3.- Espainiako hizkuntza ezberdinen aberastasuna kultura ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes bereziak izango ditu.

NAFARROAKO EREMU EZ EUSKALDUNA

Euskara ez da ofiziala

Eremu ez euskalduneko udalerriak:

Aberin, Ablitas, Aguilar Kodes, Allo, Andosilla, Aras, Arguedas, Armañanzas, Arronitz, Artaxoa, Artazu, Aiegi, Azagra, Azuelo, Barasoain, Barbarin, Barillas, Beire, Berbintzana, Buñuel, Cabanillas, Cadreita, Caparroso, Cárcar, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, Desoio, El Busto, Elizagorria, Esa, Eslaba, Esprontzeda, Etaio, Ezprogi, Faltzes, Fitero, Fontellas, Funes, Fustiñana, Galipentzu, Gazteluberri, Genevilla, Girgillano, Ibargoiti, Iguzkitza, Irunberri, Kaseda, Lana, Lapoblación, Larraona, Leatxe, Legarda, Legaria, Lerin, Liedena, Lodosa, Los Arcos, Lukin, Mañeru, Marañón, Martzilla, Mélida, Mendabia, Mendaza, Milagro, Miranda Arga, Monreal, Monteagudo, Morentin, Mués, Murchante, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Muruzabal, Nabaskoze, Oko, Olexoa, Oloritz, Orisoain, Peralta, Petilla de Aragón, Piedramillera, Pitillas, Ribaforada, Romanzado, Sada, San Adrián, San Martín Unx, Sansol, Santacara, Sartaguda, Sesma, Soslada, Torralba del Río, Torres del Río, Tuter, Tulebras, Ukar, Uxue, Untziti, Urraulgoiti, Uterga, Valtierra, Viana, Villafranca, Villamayor de Monjardín, Xabier eta Zarrakastelu.

Ondorioa:

Eremu ez-euskalduneko herritarrak Nafarroako Herri Administrazioari euskaraz zuzentzen bazaizkio, badago, Legearen arabera, gaztelaniara itzul dezaten eskatzea.

Ipar Euskal Herria

ESTATU FRANTSESA

1. Frantziako Konstituzioa:

2. artikulua, 1958ko urriaren 4ko Konstituzioan (Aldaketa, 1998ko abuztuaren 4ko 95-880 Konstituzio Legeko 8. artikuluan) : «**Errepublikaren hizkuntza frantsesa da**».

75-1. artikulua, Konstituzioan sartua 2008ko uztailaren 23ko 2008-724. Konstituzio Legearen bidez, Frantziako eskualde hizkuntzei buruz, V. Errepublikaren erakundeak modernizatzen dituen: «**Eskualde hizkuntzak Frantziaren ondarea dira**».

2. Toubon legea:

1994ko abuztuaren 4ko Toubon legea, hizkuntza frantsesaren erabilerari buruzkoa:

1. artikulua: «Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarritzko osagaia ere bada. Hau da hezkuntzaren, lanaren, harremanen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (...)»

21. artikulua: «**Lege honen xedapenak aplikagarriak dira, Frantziako eskualdeetako hizkuntzen legeriari eta araudiei kalterik egin gabe eta ez dira haien erabileraren aurkakoak**».

3. NOTRe legea:

2015eko abuztuaren 7ko 2015-991. Legeak, Errepublikaren antolaketa berriari buruzkoak (NOTRe), «eskualde hizkuntzen sustapenerako» eskuduntza formalizatzen du eta eskuduntza honen izaera partekatua baieztatzen du.

4. Irakaskuntzari buruzko lege eta araudi eremua

Hezkuntza kodea:

- **L. 121-1 artikulua:** Formakuntza honen maila orotan sar daiteke eskualdeetako hizkuntzen eta kulturen irakaskuntza [...]
- **L. 121-3, II. artikulua:** Frantsesa da irakaskuntzaren, azterketen eta lehiaketen, baita tesien eta ikerlanen hizkuntza, ikastetxe publiko eta pribatuetan. Salbuespenak justifika daitezke:
 1. Eskualdeetako eta kanpoko hizkuntzen eta kulturen irakaskuntzaren beharreatatik [...]
- **L. 123-6, al. 3. artikulua:** Irakaskuntzaren zerbitzu publikoa hizkuntza frantsesaren eta eskualdeetako hizkuntzen eta kulturen sustapenaz eta aberasteaz arduratzen da. Eskualde eta nazio mailako ondarearen osagaien azterketan eta baloratzean parte hartzen du [...]
- **L. 312-10. artikulua:** Eskualdeetako hizkuntzak eta kulturak Frantziako ondarearenak baitira, hauen irakaskuntza, erabiltzen diren eskualdeetan sostengatua da lehentasunez.

Irakaskuntza hau eskola-garai osoan eman daiteke, hizkuntza horiek erabiltzen diren kolektibitateen eta Estaturen artean hitzartuak diren moldeei jarraikiz.

Hezkuntzako Goi Kontseilua kontsultatuko da, L. 231-1. artikulua ematen dizkion ahalmenen arabera, eskualdeetako hizkuntzen eta kulturen ikaskuntza sostengatzeko moldeez, hizkuntza hau erabiltzen diren eskualdeetan.

Eskualde hizkuntzen eta kulturen hautuzko irakaskuntza eskainia da hemen agertzen den molde batean edo bestean:

1. Eskualdeko hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza.
2. Irakaskuntza elebiduna frantsesez eta eskualdeko hizkuntzan.

Familiei jakinaraziko zaie zein diren eskualde hizkuntzen eta kulturak ikasteko eskaintza ezberdinak.

2003ko maiatzaren 12ko agindua, eskualde hizkuntzen oren parekotasuneko irakaskuntza elebidunaz, eskoletan, eta kolegio eta lizeotako eskualde hizkuntza sailetan:

1. artikulua «[Hezkuntza kodeko D. 312-33 - D. 312-39](#) artikuluen araberako eskualde hizkuntza kontseilua sortu duten akademiaren errektoreak ezar dezake oren parekotasuneko irakaskuntza elebiduna eskoletan, eta kolegio eta lizeotako eskualde hizkuntza sailetan, eskualde hizkuntzen akademia kontseilua kontsultatu ondoren, iritziak hartuz akademiako batzorde teknikoetan, Hezkuntza ministerioko Akademia kontseiluan, Hezkuntza ministerioko departamendu kontseiluetan eta dagokien lurralde kolektibitateetan.

2. artikulua «Oren parekotasuneko irakaskuntza elebiduna, denbora erdiz tokiko hizkuntzan emana da eta denbora erdiz frantsesez. Halere ezin da ikasgai bat edo ikas-eremu bat tokiko hizkuntzan bakarrik irakatsi. Frantsesez edo tokiko hizkuntzetan ematen diren programa edo irakaskuntza zatiak, eskola edo ikastetxe proiektuaren barnean zehaztuko dira, oren parekotasunaren printzipioari jarraikiz.»

2013ko uztailaren 8ko 2013-595. Legearen eranskina: [...] Kanpoko edo eskualdeetako hizkuntza bizietan, ikaskuntza eta ukipen goiztiarra, aitzinamenduaren faktore frogatua da. [...] Dagokien akademiaren, eskualde hizkuntzaren ikaskuntza osagarria sustatuko da ama eskolatik haste. Kanpoko eta eskualdeetako obra eta baliabide pedagogikoetan ibiltzea sustatuko da eskola, eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko tenoreetan.

Eskualde hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza hauen irakaskuntza eskainiko zaie nahi duten familiei. Beraz irakaskuntza hau eskola-garai osoan eman daiteke, hizkuntza horiek erabiltzen diren lurralde kolektibitateen eta Estaturen artean hitzartuak diren moldeei jarraikiz. Gainera lurralde kolektibitateek antola ditzaketen hezkuntza eta kultura ekintza gehigarrietan eskualde hizkuntza eta kulturen ezagutza sar daiteke.

Eskualde hizkuntzaren irakaskuntza eskaintzen duten eskoletako sarbidea sostengatzeko, horrelako eskolarik beren herrian ez duten ikasleek, beste herri batean izena eman dezakete eskualde hizkuntza irakasten duen eskolan, tokiak eskuragarri diren neurrian.

5. Hedabideak

2000ko abuztuaren 1eko 2000-719. Legea, aldatzen baitu komunikazio askatasunari buruzko 1986ko irailaren 30eko 86-1067. Legea:

- 3. artikulua 43-11. artikulua berri bat sartzen du 1986ko legean zeinek 2. lerroan erabakitzen baitu irratigintza sozietateek «hizkuntza frantsesaren sustapena segurtatzen dute(la) eta eskualdeetako nahiz tokietako kultura eta hizkuntza-ondarea balioesten».
- 4. artikulua 44, III. artikulua berria sartzen du: Radio Francek «bere antena deszentralizatuen bidez sostengatzen du eskualdeen adierazpena lurralde osoan».

2009ko ekainaren 23ko 2009-796. dekretua baldintzen bilduma finkatzen duena France Télévisions egitarau sozietate nazionalarentzat. 2013ko apirilaren 16ko 2013-233. dekretuak aldaturik:

- 40. artikulua: France Télévisions egitarau kasu ematen du, argitaratzen dituen zerbitzuetan, tokiko edo eskualdeko egitarauak eskaintzen dituztenek parte har dezaten metropoli eta itsas haraindiko hizkuntza nagusien adierazpenean.

6. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna:

Frantziak izenpetu zuen Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1999ko maiatzaren 7an baina ez zuen berretsi. Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilean onartu zuen konstituzio emendakin bat itunaren berrespena ahalbidetzen zuena, azkenean Senatuak baztertu zuena 2015ko urriaren 15ean.

IPAR EUSKAL HERRIA

Aipatu diren neurriak Ipar Euskal Herriari dagozkio, baita Frantziako Errepublikaren lurralde osoari ere. Ipar Euskal Herrian, maila guzietako botere publikoek (Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak, Udal-multzoak) elkarretaratzeko hautua egin dute, euskararen aldeko politika publiko bat definitzeko eta gauzatzeko. Ondorioz, Ipar Euskal Herriko udalerriek Sindikatu batean bildurik, Euskal Herriko hautetsiek Hautetsien Kontseiluaren bidez ordezkaturik, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak eta Estatuak ministerio-arteke urraspide batean bilduz Barne, Kultura eta Hezkuntza Ministerioak, denek elkarrekin eraiki dute **zuzenbide publikoko erakunde bat Euskararen Erakunde Publikoa deitzen dena**, interes publikoko elkargoaren formarekin. Erakunde honen ardura berezia da euskararen aldeko hizkuntza politika bat prestatzea, definitzea eta obratzea. 2017an, Euskal Elkargoak, Iparraldeko 158 herriak biltzen dituenak, Euskararen Erakunde Publikoan Udal-multzoa ordezkatzeko du, Herriarteke Sindikatua eta Hautetsien Kontseiluaren lekua hartuz.

1. ondorioa:

Konstituzio Kontseiluak, 1999ko ekainaren 15eko 99-412. Erabakian kontuan hartu du:

«1789ko gizakia eta herritarraren eskubideei buruzko adierazpenaren 11. artikulua aldarrikatzen duen askatasuna, zeinen hitzetan “pentsamenduak eta iritziak askatasunez komunikatzea gizakiak dituen eskubideetatik baliotsuenetako bat da: herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima dezake, baina askatasun horretaz abusatuz gero, erantzukizuna izango du, legeak ezarritako kasuetan”; askatasun hau bateratu behar da Konstituzioaren 2. artikulua erekin, zeinen arabera “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”;

«araubide hauek frantsesa erabiltzera behartzen dituztela zuzenbide publikoko pertsona juridikoak, baita zuzenbide pribatuko pertsonak ere, hauek zerbitzu publiko kargua betetzen dutelarik; erabiltzaileek ere administrazio eta zerbitzu publikoekin harremanetan direlarik ezin dutela frantsesaz besteko hizkuntzarik erabiltzeko eskubidea baliatu, ez eta erabilera horretara behartuak izan ere; Konstituzioaren 2. artikulua ez duela debekatzen itzulpenak erabiltzea; artikulua hau

gauzatzeak ez duela eraman behar adierazpen eta harreman askatasuna gutxiestera irakaskuntza, ikerketa eta ikus-entzunezko komunikabideetako gaitan».

Beraz, frantsesa da irakaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza, baina ez da eragozpenik, eskualde hizkuntzak erabiltzeko administraziogintzan, **dagozkion pertsonen adostasunarekin**.

Eskualde hizkuntzak erabil daitezke komunikazio idatzian, adierazpenarekin batean **frantsesezko bertsioa** ematen den puntutik, **honek bakarrik baitauka balio juridikoa**.

Garraio publikoetan argibide mezuak zabal daitezke frantsesa ez den beste hizkuntzetan, frantsesez ere zabaltzen diren puntutik.

Bide seinale elebidunak edo eleaniztunak erabil daitezke, mezuak ez duelarik aginte bat adierazten.

Oro har, ez da eragozpenik eskualde hizkuntzak erabiltzeko, baina ez da erabilera segurtatzen duen eskubiderik, alabaina «erabiltzaileek administrazio eta zerbitzu publikoekin harremanetan direlarik, ezin dute frantsesa ez den beste hizkuntzarik erabiltzeko eskubidea baliatu, ez eta erabilera horretara behartuak izan ere».

2. ondorioa:

Ipar Euskal Herrian botere publikoek obratzen duten hizkuntza politika alde batetik boluntarista eta akuilatzailea da, bestalde eragile eta hiztunen nahia eta atxikimenduaren errespetatzailea. Euskararen erabilera eta ikaskuntza boluntariogoan oinarritzen da. Botere publikoak arduratzen dira (edo ez), beren nahiaren eta hautuaren arabera, euskarazko zerbitzuen eskaintza aitzinarazten herritarrentzat, hauek libre direlarik onartzeko edo ez.

3. ondorioa:

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza haizu da eskoletan, kolegioetan eta lizeoetan, baina ezin da nahitaezkoa izan.

Irakaskuntza hau hiru moldetan eskaintzen da.

- Euskararen hautuzko irakaskuntza astean oren batetik 3 orenetaraino lehen mailan, astean 2 edo 3 orenez kolegioan eta lizeoan.
- Oren parekotasuneko irakaskuntza elebiduna deitzen dena (ikastetxe publikoetan eta pribatu erlijiodunetan). Irakaskuntza honen ezaugarriak dira:
 - o Lehen mailan irakaskuntza denbora-erdiz euskaraz eta denbora-erdiz frantsesez.
 - o Kolegioan eta lizeoan euskararen irakaskuntza astean 3 orenez eta euskarazko irakaskuntza hizkuntza ez diren beste ikasgai batean edo gehiagotan, baina oren parekotasuna gainditu gabe.
- Euskararen murgiltze bidezko irakaskuntza, elkarte eskola pribatuetan, Estatuarekin elkartze kontratupean direnak.

Bestalde ere, ikastetxe publikoetan eta pribatu erlijiodunetan denbora osoko euskarazko irakaskuntza eskain daiteke espermentazio pedagogiko proiektu batean, 3 eta 5 urte arteko epe mugatuan eramanez eta entseguaren estimazio bat egitekotan.

4. ondorioa:

Estatuaren tokian tokiko zerbitzuek, beren ardura betetzeko, eskualde hizkuntza bat edo beste erabil dezakete frantsesarekin batera. Praktikan, Ipar Euskal Herrian dauden Estatu zerbitzuek ez dute euskararik erabiltzen.

Estatuaren erakunde publiko diren osasun etxe publikoak (ospitaleak adibidez), Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzartuak dira, erakunde publikoetan euskara erabiltzeko urraspidea eramateko.

5. ondorioa:

75-1 artikulua, lurralde kolektibitateak aipatzen dituen Konstituzioko XII. tituluan idatziz, legegileak finkatu zuen Estatuarekin erantzukizun partekatuaren printzipioa, gero NOTRe legeak berretsia.

Kolektibitateek, nahi badute, euskararen erabilera sustatzeko politika antola dezakete.

Baraz, egoera zibil agiriak, Herriko Etxeek ematen dituzten dokumentu publikoak, frantsesez idatzi behar dira. Baina ez da eragozpenik, Herriko Etxeek itzulpen bat eman dezaten beste hizkuntza batean, herritarrek eskatzen badute eta gasturik gabe Estatuarentzat. Udallerriek komunikazio elebiduna eta udal zerbitzu elebidunak gara ditzakete.

Halaber Departamenduak eta Eskualdeak hizkuntza politika gara dezakete beren eskumen eremuetan (adibidez: bide seinaleak edo haurtzainen gaitasun agiriak Departamenduak, enplegu eskatzaileen formakuntza edo hedabideak Eskualdeak eta beste)

6. ondorioa:

Zerbitzu publikoko hedabideek eginbideak badituzte beren baldintzen bildumetan eta honakoetan idatziak:

- France 3 sozietatearen eginkizun kaiera eta baldintzen bilduma:
II. kapitulua – Eginbide bereziak
V. – Eskualde hizkuntza nagusien emankizuna:
16. artikulua: Sozietateak parte hartzen du metropoliko eskualde hizkuntza nagusien adierazpenean.
- *Radio France egituraren* eginkizunen kaiera eta baldintzen bilduma: eginkizun nagusietan agertzen da bereziki frantsesa eta eskualdeetako hizkuntzak erakustea. Eskualdeetako hizkuntzak eta mintzairak France Bleu sarean tokiko antena zenbaitetan entzuten dira.

Praktikan, hedabide publikoetako egitarauetan euskararen lekua bigarren mailakoa da.